

IRAKURKETA-GIDA

Eurigilea

Gianni Rodari

FORMATU
DIGITALEAN
SOILIK

begiko

Eurigilea

Gianni Rodari



LIBURUAREN AURKEZPENEA

Egilea

Gianni Rodari Omegnan (Italia) jaio zen, 1920an. Irakaslea eta kazetaria izan zen, eta Pedagogia Berria zabaldu zuen Italian. 1950ean hasi zen haurrentzako liburuak idazten.

Hogei liburu baino gehiago argitaratu zituen. Bere liburuetan, umorea, irudimena eta fantasia oparoa uztartzen zituen. 1970ean, Hans Christian Andersen saria eman zioten bere obra osoagatik; alegia, haur- eta gazte-literaturako sari garrantzitsuena. 1981ean hil zen, Erroman.

Sail honetan, berea da *Ipuin hautatuak, aldrebes kontatuak!*.

Irudigilea

Nicoletta Costa Triesten (Italia) jaio zen, 1953an. Arkitektura ikasi zuen Venezian, eta 1977an Espainiara joan zen diru-laguntza batekin. 1980az geroztik, haurrentzako liburuak irudiztatzen ditu, batzuetan baita idatzi ere. Sari garrantzitsuak jaso ditu, hala nola Ilustrazioaren Catalònia saria (1986), Belgradeko Urrezko Luma (1988) eta Hans Christian Andersen saria (1994).

Liburua

Hodeietan, eurigilea bizi da. Hodeien txorrotak irekitzeaz eta ixteaz arduratzen da, euria egin dezan edo ater dezan.

Baina batzuetan, eurigilea nekatu egiten da, eta lo gelditzen da hodei gainean, trumoiek esnatzen duten arte. Orduan, konturatzen da txorrotak irekita utzi dituela eta euria ari duela barra-barra: eurigileak berehala ixten ditu txorrotak.

Euriak atertzen du, haizeak hodeiak bultzatzen ditu, eta eurigilea, eguzkipean eta haize goxoan, lokartu egiten da berriro. Esmatzen denean, behera begiratu, eta lurra siku-siku ikusten du. Orduan, korrika joaten da txorrota guztiak berriro irekitzera, eta berriro ere euria egiten du goian-behean.

Zergatik irakurri liburu hau?

Uraren gaia gaurkotasun handikoa da. Kontakizun honetan, egileak gertuko pertsonaia bat erabiltzen du, Eurigilea, ura oso garrantzitsua dela eta ez xahutzea premiazkoa dela azpimarratzeko. Kontakizun honen bitartez, urak naturan zer eragin duen jabetzen eta balioesten hasiko dira haurrak, eta aldi berean, irudimenari hegan egiten utziko diote.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Irakurzaletasuna garatzea, narrazio-formula errepikakorren bidez.

Zientziarako gaitasuna

Naturan gertatzen diren prozesuei buruz hausnartzea.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Zereginak aurrera eramateko behar diren lana eta ahalegina balioestea.

Balioetan heztea

Liburu hau irakurriz, haurrak jabetuko dira eurigileak bere zereginak modu arduratsuan betetzen dituela, eta bere gain hartzen dituela bere zeregina behar bezala ez egiteak dakartzan arriskuak. Ikasleek, nahiz eta txikiak izan, zeregin batzuk hartu behar dituzte beren gain, autonomia bereganatzen lagunduko dietenak eta gizarteko kide direla sentiaraziko dietenak. Hori landu behar dugu ikasleekin, hain zuzen ere.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Benetako liburu-azala · 1. jarduera

Hasteko, arreta-jolas bat egingo dugu, haurrak motibatzen. Fitxan, lau liburu-azal ageri dira, ia berdinak. Liburuaren azala aurrean dutela, desberdintasunak aurkitzeko eskatuko diegu.

Zer egiten du eurigileak? · 2. jarduera

Ipuinaren lehen orrialdeak irakurriko ditugu, irudiei erreparatuko diegu eta protagonistak zer egiten duen nabarmenduko dugu: hodei batetik bestera jauzi egin, txorrotak ireki, hodei gainean lo egin, behera begiratu...

Hori egin ondoren, aipatutako ekintzak fitxan aurkitzeko eta markatzeko eskatuko diegu haurrei.

Zer gertatuko da? · 3. jarduera

20. orrialdean, eurigileak dena urez gainezka ikusten du, eta txorrotak ixten ditu. Gero, lokartu egiten da berriro. Sekuentzia horretara iristean, ikasleei galdetuko diegu ea zer gerta daitekeen. Hipotesiak egingo ditugu, eta nork bere proposamena fitxan margotzeko eskatuko diegu ikasleei.

Izen-zopa · 4. jarduera

Ipuinean behin eta berriz agertzen diren elementuak nabarmenduko ditugu, liburuko irudiei erreparatuz. Eurigilea eta beste elementuak izendatuko ditugu, hala nola eguzkia, etxeak, zuhaitzak, hodeiak... Ikasleei fitxa banatu, eta letra-zopan elementu horietako batzuen izena aurkitzeko eskatuko diegu. Jarduera errazteko, komeni da bilatu behar dituzten hitzak arbelean idaztea.

Irudi-istorioa · 5. jarduera

Ipuinaren azken zatia gogora ekarriko dugu, eta eurigileak egindako ekintzak laburbilduko ditugu. Ekintza horiek errepikatu egiten direla nabarmenduko dugu.

Haurrei fitxa erakutsi, eta istorioa laburbiltzen duen testua irakurriko dugu denok batera, piktogramaz baliatuz.

Ozen: Ipuina kontatzen

Banatu ikasleak bi taldetan eta eman rol bat talde bakoitzari: talde batek ipuina kontatuko du, eta besteak entzuten duena antzeztuko du.

Interesgarria irudituz gero, jarduera berriro egin daiteke, taldeen rolak aldatuz.

Baloratu**Urik ez xahutu**

Ipuina baliatuko dugu ikasleei ikusarazteko ipuinean fantasiaren bidez kontatzen dena benetan gertatzen dela: batzuetan, leku batzuetan lehorrea dago, eta beste batzuetan, uholdeak daude. Ikasleei azalduko diegu euri gutxi egiten duenean urtegieta ez dela behar adina ur pilatzen, eta urtegiak hornitzen dituztela urez herriak eta hiriak. Horregatik, denok ura izatea nahi badugu, garrantzitsua da urik ez xahutzea.

Haurrei pentsatzeko eskatuko diegu: Zer egin dezakegu etxean eta eskolan ura neurritz kanpo ez erabiltzeko? Besteak beste, hortzak garbitzen ditugun bitartean txorrota itxi, eta komuna zakarrontzi gisa ez erabili. Iradokizun horiek eta haurrek esaten dituztenak kartoi mehezko zerrendatan idatzi, eta ikasgelan jarriko ditugu, begien bistan, denek irakur ditzaten.

Eztabaida: Egun bat urik gabe

Haurrei azalduko diegu jende guztiak etxean ez duela edateko ura, ezta ura ematen duen txorrota bat ere, guk bezala. Esaterako, Afrikako eta Asiako herrialde batzuetan, jendeak egunero joan behar du oinez ur bila; maiz, ur hori ez da kalitate onekoa, hondakin kutsagarriak botatzen baitituzte uretara, eta ur hori edaten dutenak gaixotu egin daitezke.

Tartetxo bat emango diegu beraiek horrela nola biziko lirartekeen hausnartu dezaten.

Gero, ikasleei eskatuko diegu imajinatzeke egun batez etxean ez dutela edateko urik eta botila bat ur mineral bakarrik dutela. Zertarako erabiliko lukete? Beren burua garbitzeko, kozinatzeke, landareak ureztatzeke...

Ikasleen iritziak entzun ondoren, hausnarketa amaitzeko, urak gure bizitzan zer-nolako garrantzia duen balioetsiko dugu, eta ura ez xahutzea zeinen garrantzitsua den azpimarratuko.

Lan nekagarria

Haurrei gogoraziko diegu eurigilea hodeietan lotan gelditzen dela oso nekatuta dagoelako txorrota guztiak irekitzen eta ixten ibili behar izateagatik.

Beste lanbide gogor batzuetan pentsatuko dugu, edo ordutegiagatik nekagarriak izan daitezkeen lanbide batzuetan.

Interesgarria irudituz gero, galdetu gurasoei zein den haien lanbidea eta laneko ordutegia, hurrekin ikasgelan horri buruz hausnartzeko.

Sortu

Bi eurigile

1. jarduera ekarriko dugu gogora. Jarduera horretan, liburu-azaletako batzuetan bi eurigile ageri ziren.

Galdetu ikasleei: Nola aldatuko litzateke istorioa eurigile bat egon beharrean bi eurigile egongo balira?

Galdera batzuk egingo dizkiegu, hausnarketa bideratzeko:

- Bata txorrotak irekitzeaz arduratu liteke eta bestea ixteaz?
- Zer izen izango luke beste eurigileak?
- Emakumea izan liteke?
- Zer harreman izan lezakete biek?

Euriari buruzko nire istorioa

Liburuaren egileak, Gianni Rodarik, oso arrazoi burutsua aurkitu zuen euria zergatik egiten duen azaltzeko, baina irudimenari hegan egiten utziz gero, agian beste arrazoi batzuk aurki ditzakegu.

Haurrei proposatuko diegu beste istorio bat imajinatzea edo asmatzea, azaltzeko zergatik egiten duen batzuetan euria eta beste batzuetan ez.

Zera izango banintz... · 6. jarduera

Haurrei proposatuko diegu imajina dezatela pertsonen bizitzan eta naturan oso eginkizun garrantzitsua dutela, eurigilearena bezalakoa, eta eginkizun hori beraiek bakarrik egin dezaketela.

Horretan pentsatzeko tarte bat eman ondoren, fitxa emango diegu, beren misioa zein den azaldu dezaten eta misio hori adierazten duen marrazki bat egin dezaten.

Idazlearen lanbidea: *Oso azalpen originala*

Liburu honetan, era dibertigarrian azaltzen da zergatik egiten duen euria, zergatik batzuetan euri gutxi egiten duen eta beste batzuetan etengabe.

Liburua irakurri ondoren, haurrei proposa diezaiekegu eguneroko bizitzako gauzak azaltzeko istorioak asmatzea. Esaterako: Zergatik datoz gaua eta eguna bata bestearen atzetik? Zergatik aldatzen dira urtaroak? Zergatik egiten du hotza edo beroa? Zergatik sortzen dira uhinak itsasoan?

Banatu ikasleak taldetan, eta lagundu gai bat aukeratzen. Gero, talde bakoitzeko kideen artean gertakari hori azaltzen duen istorio bat sortu beharko dute.

Amaitzeko, talde bakoitzak bere istorioa kontatuko die besteei.

Landatu eta ureztatu!

Ikasgelara lore baten (hala nola geranio baten, petunia baten edo bitxilore baten) kimua eramatea proposatzen dugu, denon artean zaintzeko. Hau guztia beharko dugu: landare baten aldaxka, loreontzi ertain bat, loreentzako lurra, hiru harritxo eta ureztaontzi bat urarekin.

Horrekin batera, olerki bat irakatsiko diegu. Olerkia esaten dugunean, mimika erabil dezakegu.

Olerkia

Ba al dakizu geranio bat nola landatu?

Oso erraza da. Hasteko, zurtoin zati bat moztu. (Egin mozteko keinuak).

Loreontzi bat hartu, lurra prestatu,
eta loreontzian hiru harri sartu. (Erakutsi hiru hatz).

Eta harriak zertarako?

Sobera dagoen ura iragazteko. (Seinalatu harriak).

Loreontzia bete behar dugu lurrez erdiraino,
zurtoina sartu, eta lurrez bete goraino! (Egin landatzeko keinuak).

Leku eguzkitsu batean kokatu, (Seinalatu leihoa)
eta kontu handiz astean behin ureztatu. (Seinalatu ureztaontzia).

Eta geranioak landatzeko, zer hilabete dira egokiak?

Urteko hilabete guztiak,
baina bat aukeratu behar bada,
nik nahiago dut apirila, hara!





IZENA: MAILA:

EURIGILEA

Gianni Rodari

1. jarduera · Benetako liburu-azala

- Erreparatu ondo liburu-azalei, eta aurkitu haien artean dauden deberdintasunak.



- Koloreztatu liburu-azal zuzena.

IZENA: MAILA:

EURIGILEA

Gianni Rodari

2. jarduera · Zer egiten du eurigileak?

Markatu zer egiten duen eurigileak bineta bakoitzean.



- Hodei batetik bestera jauzi egin.
- Hodei artean ezkutatu.



- Aterkia ireki.
- Txorrota ireki.



- Hodei azpian lo egin.
- Hodei gainean lo egin.



- Gora begiratu.
- Behera begiratu.


IZENA: MAILA:

EURIGILEA

Gianni Rodari

3. jarduera · Zer gertatuko da?

- Erreparatu irudiei, eta kontatu zer gertatzen den bakoitzean.



- Zure ustez, zer egingo du eurigileak lehortea amaitu dadin? Marraztu hodei zurian.



IZENA: MAILA:

EURIGILEA



Gianni Rodari

4. jarduera · Izen-zopa

Letra-zopa honetan, lau elementuren izenak daude ezkutatuta. Aurkitu.



E	T	X	E	A	K	B	U	A
L	J	H	R	T	G	O	L	Z
Z	U	H	A	I	T	Z	A	K
O	N	E	G	U	Z	K	I	A
H	O	D	E	I	A	K	T	Z
O	S	L	F	I	N	X	U	Z





IZENA: MAILA:

EURIGILEA

Gianni Rodari

5. jarduera • Irudi-istorioa

Entzun eta irakurri ozen ipuinaren laburpena.



IZENA: MAILA:



EURIGILEA

Gianni Rodari

6. jarduera · Zera izango banintz...

Imajinatu eurigilea bezain berezia zarela eta gauza miragarri bat egin dezakezula, inork egin ezin duena.

- Esan zein izango litzatekeen zure izena eta azaldu nola beteko zenukeen zure misioa.
- Egin zure buruaren marrazki bat.



IZENA: MAILA:

EURIGILEA

Gianni Rodari

Irakurmen-testa

Pentsatu ondo galderetan, eta markatu erantzun zuzenak.

1. Nola du izena ipuineko protagonistak?

- a Hodeigilea.
- b Eurigilea.
- c Izpigilea.

2. Nola mugitzen da zeruan?

- a Hodeiz hodei jauzi eginez.
- b Aterki baten gainean.
- c Hodeiak gogor zapalduz.

3. Zergatik egiten du batzuetan euria gelditu gabe?

- a Eurigileak txorrotak irekita uzten dituelako eta lo geratzen delako.
- b Txorrotak hautsi egiten direlako eta inork ezin dituelako itxi.
- c Eguzkia negarrez hasten delako.

IZENA: MAILA:

EURIGILEA

Gianni Rodari

4. Zergatik gertatzen dira batzuetan lehorteak?

- a Eguzkia ez delako inoiz joaten oporretara.
- b Zuhaitzek euri-ur guztia edaten dutelako.
- c Eurigileari txorrotak irekitzea ahazten zaiolako.


Erantzunak

EURIGILEA

Gianni Rodari

Benetako liburu-azala

• 1. jarduera




Izen-zopa · 4. jarduera

E	T	X	E	A	K	B	U	A
L	J	H	R	T	G	O	L	Z
Z	U	H	A	I	T	Z	A	K
O	N	E	G	U	Z	K	I	A
H	O	D	E	I	A	K	T	Z
Ñ	S	L	F	I	N	V	U	Z

Zer egiten du eurigileak

• 2. jarduera



- Hodei batetik bestera jauzi egin.
 Hodei artean ezkutatu.
 Aterkia ineki.
 Txorrotak ineki.



- Hodei azpian lo egin.
 Hodei gainean lo egin.
 Gora begiratu.
 Behera begiratu.

Irudi-istorioa · 5. jarduera

Eurigilea arin-arina da eta hodeietan bizi da. Hodeiek txorrotak asko dituzte. Eurigileak txorrotak irekitzen dituenean, ura erortzen da hodeietatik etxeetara, zuhaitzetara eta mendietara.

Irakurmen-testa

1 b; 2 a; 3 a; 4 c.